

[b]

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

636. zkia.

XV. urtea

2007ko azaroaren 30a

Duo Plaentxi bikoteak lehen diskoa kaleratu du

# Musikari eta lagun handiak





# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



2 ANI

1.850  
X  
598  
X  
600 mm

**A** Salkapen energetikoa  
**HOZKAILUA COMBI 6 FAC-495**  
420 € 75.140 pta.



2 ANI

1.700  
X  
600  
X  
600 mm

**A** Salkapen energetikoa  
**HOZKAILUA 4FE-0E41**  
295 € 49.265 pta. **LYNX**



2 ANI

1.000 b/min  
5 kgc.

**A** Salkapen energetikoa  
**GARBIGAILUA LA-110**  
305 € 50.935 pta.



2 ANI

LADIA  
BITROZERAMIKA  
83AS410

**LADIA eta BITROZERAMIKA  
INSTALATUTA**  
335 € 55.945 pta.



Sukalde frija, berntzen eta duana, igeltsuetan lanik barik. Kurbu eta gaineko sukalde bikoitzarekin.  
Altuera: 85 cm.  
Luzerik: 85 cm.  
Sakonera: 60 cm.

**BEPOTU SUKALDEA C-85 NC**  
1925 € 321.475 pta.



2 ANI

**TELEBISTA PHILIPS  
LTD (TDT) INTEGRATUA  
LCD 26" PFL5522D**  
595 € 99.365 pta.  
**LCD 32" PFL5522D**  
735 € 122.745 pta.



2 ANI

**TELEBISTA SANYO  
LTD (TDT) INTEGRATUA  
LCD 26" CE26LD81 - C**  
650 € 108.590 pta.  
**LCD 32" CE32LD81 - C**  
685 € 114.395 pta.



**"VERO" MAHAIA**  
110x70 cm,  
zabalgarria 160x70 cm-ra  
450 € 75.190 pta.



Fagor Eko-igorie elektrikoak

#### BERO URDINA, IZUGARRIZKO AURREZKIA

	ED	E
(910x1060x95) mm	370 €	345 €
(910x916x95) mm	300 €	310 €
(910x766x95) mm	295 €	270 €
(910x616x95) mm	255 €	230 €
(910x466x95) mm	215 €	195 €

ED: Elektroniko digitala  
E: Elektroniko, eskuzkoa

Biltegiko Biltegizari irabazpen 448/2011  
duan fagar irabazpen energia konsumoaren  
interesa eragoz gertatzen.

**A** >>> 70%  
**A** >>> 45%  
**B** >>> 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Katalide poligonon 3, Roneo ondoan.

Katalide poligonon 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Fax: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOZETAN ZABALIK

## Elgoibarretik 15 minutura, autopista alboan!



*Friondo*  
altzariak

Santa Ana 4-6 20870 ELGOIBAR TLF.: 943 74 12 34  
mueblesiriondo@euzkainet.net

- TV altzaria 855€
- Zutikako lanpara 247€
- Laruzko sofa artikulatua 1350€
- Erdiko mahaia (eskaparatekoa) 198€

# 2650€



IBAI PORTU

Udazkeneko gauetan, zeruko lainoen artetik izarren bat ikusten denean, Afrikara bidean doazen antzarrak entzun daitezke, iparraldeko izozteei ihes egin nahian.

Azaroko gauetan, gure basoetako hon-zen kanten oihartzunek inoiz baino indar handiagoa dute, negu gordina iritsi aurretik bikotea topatu eta negua goxoago igarotzeko.

Oihana, basoetako zuhaitzek beren hosto gehienak galduak dituzte jada, lehen elurak gure mendiak hartzen hasiak dira eta tenperaturak zero azpitik jaitsi zaizkigu behin baino gehiagotan.

Negua baino lehen izaten diren gerta-rikun ikusgarrienak, nire ustez, jadanik ger-tatu dira.

Eztaukat Gabonei itxaron beharrik nire-ztat negua honezkero iritsi dela esateko.

Baina urtaro hau hotza bezain ederra da.

Elurra dakar gure mendietara, basabi-zitzaren urratsak agerian utziz, Olentzero gure herrietara, aintzinako ikazkinak bizira-tuz, familia batuko du gure etxeetan, lagu-nak afari luzeetan elkartuko gaitu, eta gure mendi tontorretatik udaran bereiztu ezin daitezkeen paisaia urrunak agertaraziko dizkigu.

Ongi etorri, negu, aurten zutaz gozatu-kodut.

Oihana, zuretzat iritsi al da negua, ala oraindik ez?

## ZOZOAK BELEARI...



OIHANA TARRAGUAL

«Oihana,  
zuretzat iritsi da  
negua  
ala oraindik ez?»

IBAI

«Negua  
zoragarria da,  
udaberriari atea  
irekitzen dizkio»

OIHANA

Duela aste batzuk Xabier Amuriza el-karrizketatu nuen Berrizen. Bere etxera iris-tean paisaia zoragarriarekin egin nuen to-po. "Ederra tokia", esan nion. Eta Amurizak erantzun: "Bai ederra da, baina barruko paisaia ederra ez denean, Anbotok ez dit lagutzen", erantzun zidan.

Egia da neguko paisaiak zoragarriak direla, baina egia da baita ere, urte osoan elkartu gaitzkeela familiarekin eta urte osoan, gure etxeko goxotasunean, barre-nera begiratu eta zorientsu zerk egiten gaituen jakin dezakegula.

Egutegiak eta eguraldiak negua iritsi dela diote baina nahi izanez gero, urte osoa izan daiteke negu, Ibai.

Oraingo negua dagoeneko ez da haurtzaroko negua. Ez dago hainbeste elur mendietan.

Non geratu ote dira Gaintxipixan za-kuarekin maldan behera ibiltzen gineneko arratsaldeak. Eskiatzeko modu hobetik ezagutzen al duzue?

Visa txartela poltsikoan daramagunok, supermerkatuetako goxotasunean alperri-kako hainbat gauza erosten ditugun bitar-tean, hotzak kaleetan lotan diren pobreak hiltzen ditu.

Hala ere, negua zoragarria da udabe-rrirako atea irekitzen dizkigulako. Lore bat zuretzat Ibai, eta beste bat zuretzat irakur-le. Barruko paisaia iluna denean, eraman ezazue bidelagun.



NEGUA EZ BADA NEGU, UDAK ERE HUTS



Esaera zaharra

## Mingain urdin

Aurreko azaroaren 6an Espainiako errege-erreginak Ceuta eta Melillan bisitari. Espainiartasuna gori-gori, gorri-gorri, hori! hori! Odol urdina omen.

Gurean berriz mingain urdina, komunikabideena. Bizkaian zein Gipuzkoan salduen "Correo Español" zein "Diario Vasco" lehenengo orriko argazkian bandera hori-gorri ongi etori. Editorialean, berriz, Ceuta eta Melilla Espainiaren proiektu komunean guztiz txertaturik omen buru belarri. Hau komunera joateko gogo!!! Egunkari horien irakurle fidel asko euskal abertzaleak omen. Nere ustez mingain urdin, bihotz hori, Espainiaren proiektuan guztiz txertaturik. Gora Espainia Urdin! Espainiako ejerzitzaoren militar burua berdin! Zuri-gorri zein zuri-urdin! Berdin berdin! Hipokrisiari stop mesedez!

MIKEL LARRAÑAGA

## Santa Ana kalea ireki!

Santa Ana Kaleko etxeak eraikitzeke garabi bat jari zuten espaloi erdian. Madalakoetan, berriz, eraikuntzaren estruktura bukatu ondoren garabiak kendu egin dituzte eta beste gailu batzuekin jarraitzen dute lanean, kalea ireki eta egunerokotasunera lehenbailehen bueltatzeko. Baina Santa Ana kaleko kasuan badirudi patxadaz ari direla lanean, gainontzekoei sortzen dizkiguten eragozpenak kontuan hartu gabe.

Ez dago esan beharrik kale hori autontzat itxita edukitzeak inguruko bizilaguru

nei eta Olaso eta Sigman lan egiten dutenei sortzen dizkieten eragozpenak izugarriak direla. Horrez gain, Sigmako zubitik Eibarrerantz ateratzea oso arriskutsua da. Uste dut, enpresa horri kalea lehenbailehen zabaltzeko eskatzeko unea iritsi dela.

JUANJO BASTARRIKA

## Nork nori zor?

Egunotan entzun dugu aurten ere Elgoibarren izango dela Bidezko Merkataritzako produktuak erosteko aukera. Notizia ona, zalantzarik gabe. Hobea litzateke egungo merkatal sistema bera solidarioa izatea, baina, historian atzera joan ezgero, sistema kolonialak esplotazioaz baliatu zirela nabarmena da. II. Mundu Gerraren ondoren (1946an) berriz indartu ziren albokoaren goxokia jateko gogoak, hots, orduan Merkatu Bakar izenarekin. Estatu Batuetan sortutako gogo horrek orduan bi gidari nagusi zituzten, Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa, eta GATT edo merkataritza akordioa jari zioten izen.

Orduan, merkataritza erregulazio gabea, non eskaria eta eskaintza izango diren hori arautuko dutenak, omen da agintari, baina errealitatean ez da horrela. AEBetako kasuan, adibidez, nekazaritza oso babestua da dirulaguntza izugarriekin, eta era berean beste herrialdeekin ezin dituzte beraien ekonomiak babestu.

Gauza kuriosoa gertatzen dira mundu osoan, non merkantzien ibiltzeko askatasun osoa aldarrikatzen duten, baina ez biztanleona; zer dira kafea, petrolio, ga-

ria edo artoa? Pertsona beltzak, zuriak, horiak ala marroiak baino garrantzitsuagoak? Gizakiak ez du horrenbeste balio? Ekonomikoki ez ezik, ekologikoki ere ez gara gauzak ondo egiten ari. Zorionez, Elgoibar bertan ere nekazaritza ekologikoa gero eta eskurago eta aukera gehiagorekin daukagu, baina hori ez da nahikoa.

Azkenean ekonomia sistema hau da hobetu beharrekoa bere osotasunean; egun 3. mundua deitzen diogunari lapurtzen diogu lehengaia, hemen kontsumitu eta gure ondorioak berriz ere han pairatzen dituzte (pobrezia, goseteak, izurriteak, kutsaduragatik heriotzak...)

Batetik, beraien baliabide naturalak lapurtzen dizkiegu, eta, bestetik, Munduko Bankuak herrialde hauri laguntzeko aitzakian dirua mailegatzen die. Horrek 3. munduak gurekin, herrialde "garatuekin", kanpo zorra daukala esaten digute, baina guk alderantzizkoa diogu, guk daukagula beraiekin zor ekologikoa. Beste hitz batean, garapen honen aurka jo behar dugula, horri buruz hitz egiteko bideo-berrikaltaldi batera etortzera gonbidatu nahi zaituztegu Abenduaren 14an: nork-nori-zor?

AHTREN KONTRAKO TALDEA

## OHARRA:

Datorren asteko jai zubia dela eta, abenduaren 7an BARREN ez dugu kaleratuko. Hurrengo alea abenduaren 14an jasoko duzue.



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRIA  
X. L. O. T. A. R. R. E. P. T. A. K. A.

**ZUZENDARIA:** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Asier Orbea, Oier Narbaiza, Andoni Iturbe **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILA** Zalaa Amaiz **KOLABORATZAILAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Jon Eugi, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Itziar Otaño, Ibai Portu, Oihana Tarragual, Unai Villena **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 ISSN 1139-1855





## KEXAK

• **Errotaberri kaleko baldosak solte daude:** "Errotaberri kaleko baldosak ez daude egoera onean. Gainean zapaldutakoan mugitu egiten dira, solte daude eta euria egiten duenean busti egiten gara. Dagokionari egoera hori konpontzeko eskatuko nioke".



• **San Migeleko bidean trafiko seinale gehiegi jarri dituzte:** "Ez daude hamar metro jarraian trafiko seinalerik gabe San Migeleko bidean. Nire ustez, gehiegi; Le Manseko zirkuitoa dirudi. Garrantzi-sua dela uste dut norabide aldatetarako egiteko lekuak edota larrialdi egoeretan gelditu ahal izateko guneak jartzea. Errepide horrek garbiketa behar du, eta ez hainbeste seinale. Ondo egongo litzateke, baita ere, pisu handiko kamioiei bertatik pasatzea galaraztea".

• **Madalako errotondan aparkatzeagatik isunak jartzen hasi dira:** "Badakit errotondan aparkatzea debekatuta dagoela, baina Elgoibarko erdigunean daukagun arazoa ikusita, apur bat tolerantzia goak izan beharko genuke. Madalako errotondan kotxeek ez zuten trabarik egiten, leku nahikoa zegoen. Orain hamar aparkaleku inguru gutxiago ditugu eta kale berrian OTA-TAO sistema jarriko dute. Non aparkatu behar dugu? Sigman ere ez da lekurik egoten".



## TXALOAK

• **Ikastolan ibilitakoek bazkaria antolatu zutenei eskerrak eman nahi dizkiete:** "Ikastolan elkarrekin ibili ginenok bazkaria egin genuen urriaren 20an eta primeran pasatu genuen eguna. Antolatzaileei eskerrak eman nahi dizkiegu, elkarrekin egoteko aukera bikaina eskaini zigutelako".



• **Txalo zaparrada bero bat Udal Musika Bandari eta Katxori:** "Udal Musika Bandak eskaintzen dituen kontzertu guztietara joaten naiz. Denak izaten dira bikainak, baina joan zen astekoa ikaragarria izan zen. Santa Zezilia Eguneko kalejira eta kontzertua ikusgarriak izan ziren. Katxori ere zorionak eman nahi dizkiogu. Ekitaldi hunkigarria izan zen".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





## URRUZUNIOREN *Luma*

### Maite-mina

Maiteminak zauria sortzen zion bihotzaren erdi-erdian. Zauri txikia zen, lotara joatean odoletan egoteari uzten zion eta esnatzerako berriro zeukan osatuta. Baina berehala hasten ziztaion odoletan, ttanttaka-ttanttaka, etenik gabe, egun luzeetan odolusten ari zela sentitzeraino. Akiturik, erantzi eta ohera sartu behar zuenean, logelako ispilu haundian bere buru biluziarekin topo egiten zuen eta zertan bilakatzen ari zen konturatzen zen. "Zaindu hadi piska bat, asko ari haiz argaltzen azkenaldian", "horrela flakatzen jarraitzen baduk haizeak eramango hau laster", "makil zati bat dirudik, oso mehea hago". Horrelakoak botatzen zizkioten lankideek azken boladan, baina berari txorakeriak iruditzen zitzaizkion komentariok; zerbait esatearren esaten zizkioten txatxukeriak, hori besterik ez. Bai, argal zegoen, agian ohi baino zertxobait argalago, baina ez zen hainbestearainokoa, inondik ere. Argaltasunak baino, aurpegiko begizuloek eman zioten atentzia oraingo honetan, ispiluan islatuta ikusi zituen mugarik gabeko belztasun eta sakontasuneko bi borobilek, bere begi argiak eta ia aurpegi osoa irentsiz. Atzokoan ere ez zuen begirik jo, ezta herenegun ere.

*Unai Villena*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### INMA ARRIZABALAGA

KIROLDEGIKO  
TABERNARIA

• Kafe batek zenbat balio du?

1,10 euro.

• **Freskagarri ala kafe gehiago eskatzen dute bezeroek?**  
Hasiberria naiz taberna honetan, baina momentuz kafea gehiago. Emakumeek kafea hartzen dute eta gazteek freskagarriak.

• **Kirola egiten egon beharrean, kafetegian denbora gehiegi pasatzen duenik badago?**

Ez dut uste; kirola egitera etortzen dira kiroldegira. Kirola egin ondoren hartzen dute zerbait kafetegian.

• **Zuk ere kirola egiten duzu?**

Nahiko nuke, baina ez dut astirik. Zerbait egitekotan, ariketa fisikoa egingo nuke.

• **Nori ez zenioke zerbitzurik eskainiko?**

Pasatuta dagoen bati.

• **Lan nekagarria da?**

Ohitu arteko kontua da, baina egun gutxi daramatzat taberna honetan.

• **Ikusi duzu inoiz jendea ligatzen?**

Gazteekin lan egiten baduzu, bai.

• **Taberna nahikoa badago herrian?**

Bai, taberna faltarik ez dago.

- ▶ Larrialdi telefonoak
- ▶ Farmazien egutegiak
- ▶ Tren eta autobus ordutegiak
- ▶ Intereseko telefonoak
- ▶ eta beste 768 telefono Elgoibar eskura izateko!



**Egin klik eta ikusiko duzu!**

**www.elgoiBARREN.net**

## [AKORDATZEN NAIZ]



**NIKO OSORO**

1934an jaioa

### «Dotriña»

**H**ijas de Maria" giñan gu, eta hillian behin etortzen giñan konfesau eta gure jauna hartzera. Goizeko sei terdixetarako igual mezetan egoten giñan: illunpetan etortzen giñan. Urrutitik etorri arren, ordua baiño lehenago allegatzen giñan beti elizara. Belozidadian etortzen giñan kalera! Beti kursillotara nixela esaten nion.

Eliziak indar haundixa zakan guretzako. Sakristauak eta seroriak urtian pare bat buelta egitten zittuen basarriara, eta hareri etxian zaguan onena ematen jakuen: astua beteta eruaten zeben.

Abadia ere batzuetan etxera etor-

tzen zan artua bedeinkatzera, eta hari ere, eman egin bihar oillaskoren bat gixienez. Halaxe zan.

Gaur egun, indar asko galdu dau eliziak, baiña ez diit penarik ematen, ez da elizara jun bihar pertsona ona izateko eta. Lehen ona izateko elizara jun bihar zan, bestela dana pekatua zan. Ez nado "de akuerdo" horrekin. Elizara juten ez diranak ere izan leikez pertsona onak, eta, en kanbio, elizara juten diran asko, handik urten eta txismorreuan ibiltzen dira. Pertsona da inportantia, bestieri entzuten jakiñ eta barkatu. Hori ez dau eliziak erakusten.



## [GURE BERBAK]

*Morfologia (11): NORA eta NORUTZ*

Lehendabizikuari adlatibua ere esaten jako, eta bigarrenari, hurbiltze-adlatibua.

Lehehenguari dagokixonez, pare bat egitura jasoko doguz, bakar-bakarrikan, ez dauka eta bestelako berezittasunik.

*NORA EZKONDU:*

*Markiñakua naiz izatez, baiña Elgoibarrera ezkondu nitzan.*

*Basari honetara ezkondu nitzan, eta harrezkero hemen bizi naiz.*

*NORA EGIÑ:*

*Altzolara egitten dau Bigoin basarriak, eliazaz. Baiña Altzola-Beraseta basarriak ere.*

*Mendarotik oso gertu dago, baiña Azkoitiira egitten dau basari horrek.*

Bigarrenak, Elgoibarren -RUTZ formia hartzen dau (harutz), baiña kasu-marka honen erabileria ez da erabatekoa: zenbait kasutan bakarrik erabiltzen da, adberbio modukuekin, batiz bat: gorutz, honutz, harutz eta abar. Izen arruntekin ez da atzizki oso emankorra, egixa esateko.

*Nik dakidana dok, astuak haruzkuan nekaneka egindda juten ziralda. Eta honutzian, jolasian.*

*Badakik mugatik harutz eta mugatik honutz ze alde dauan?*

Horrekin batera (edo, esan leike, horren orde), ALDERA postposiziua erabiltzen da gehixago:

*Etxe aldera abantau biharko gaittuk, eztok?*

*Eta alamia zan, eta "badatozela, badatozela", eta jendia hasi zan ihesika Lekeittio aldera.*

*Jesus Mari Makazaga*

**MAHASTI** 

Jose Angel Zabala  
URDATEGIA eta ARDANDEGIA 

Merkatu Plaza, 30-33-34 • Tel.: 615 76 03 72



**karkizano** 

San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49

MUTIL BAT JIPOITU ZUTELA SALATU DUTE

## UDALA ZAPATUETAKO EGOERA AZTERTZEN ARI DA

*Hamalau urteko elgoibartar batek azaroaren 10ean jasotako jipoiak eta beste batek jasandako eraso saiakerak zeresan ugari eman dute. Zapatuetan borrokaren batzuk gertatu izan badira ere, era horretako jipoiak ezohikoak dira, alkateak esandakoaren arabera. Udala eta Ertzaintza egoeraren diagnostikoa egiten ari dira. Azterketa egindakoan, aurrera begira hartu beharreko neurriak hartuko dituzte.*

**B**izkaia aldetik etorritako zazpi laguneko koadrila batek hamabost urteko Elgoibarko gazte bati hamar euro ostu zizkion azaroaren 10ean, afaltzeko pizza bat erostera zihoa-nean, gurasoek salatutakoaren arabera. "Jotzen ere saiatu ziren, baina zorionez ihes egitea lortu zuten", adierazi dute.

Zazpikote horrek gerxeago Elgoibarko hamalau urteko beste gazte bati ustez jipoia eman zion. Gurasoek egindako salaketaren arabera, zazpikatik hiruk jardun zuten kolpeka eta ostikoka. Ama oso hunkituta dago gertatutako guztiarekin: "Bi ezpainak handituta zituen, aurpegia handituta, odolatan, zauriak zituen, begia ubelduta...", adierazi du.

Mutil hori kalera irteten zen lehenengo zapatua zen, etxezuloa da-eta. 10:20an,

etxerako bidean zela, zazpikotea gerturatu egin zitzaion zigarroa eskatzeko aitzakiarekin. "Auto baten kontra bota egin zuten eta dirua eskatu zioten, baina berak dirurik ez zeramala esan zien. Orduan dirua emateko edo bestela labana aterako zutela esan zioten. Jotzen hasi ziren", hori da amaren testigantza. Kolpe eta ostikada ugari eman zizkietela gaineratu du, gehienak aurpegian.

Lurretik jaiki eta amarengana jo zuen laguntza eske, inguruko taberna batean lan egiten du-eta. "Oraindik atzetik segika zituen", azaldu du amak. Aitarekin batera antxixiketari hasi eta ustezko erasotzaileak harrapatzea lortu zuten eta Udaltzainei detu zieten.

Gaztea ondo dago orain. Askoz okerrago izan zitekeela eta inguruko lagunek

bikain babestu dutela azaldu du jipoitutako elgoibartarraren amak.

"Bizkaitarrak ez zeuden ez mozkortuta ez drogatuta, bat ere ez", dio gaztearen amak. 16 urte inguru zituzten. "Beldurrik ere ez zuten udaltzainak etorri zirelako edo etxera abisatuko zutelako. Ezer gertatuko ez balitz moduan".

Gauza ez zen hor amaitu. Ustezko erasotzaileetako baten aitak salaketa jarri du Elgoibarko gaztearen gurasoen kontra. "Ez dakigu zer leporatzen diguten. Baina horrek ez nau kezkatzen".

"Nik ez dakit zein den soluzioa, baina zaintza handiagoa egon beharko litzateke. Aldez aurretik erremedioak jarri behar dira eta ez beranduegi denean", azaldu du jipoitutako mutilaren familiaren inguruko emakume batek.



*Zapatuetako gorabeheren inguruko diagnostikoa egitea adostu du Udalak Ertzantzarekin. Datuok neurriak hartzea erabakiko dute.*



### Udala datuak jasotzen

Jakin badaki Elgoibarko Udalak azken hilabeteetan istiluren batzuk gertatu izan direla. Borrokaren bat edo beste izaten bada ere, jipoi hori gertaera ezohikoa izan zen, Alfredo Etxeberria alkateak azaldukoaren arabera. Normalean borroketa kanpotik etorritakoek izaten dute zerikusia.

Izan ere, garraio publikoaren zerbitzu eskaintza handitu denetik, lehenago Elgoibarrera etortzen ez zen jendea ugaltu da

zapatuetan. Jipoiarekin ustez zerikusia izan zutenak Galdakaoko adin txikikokoak ziren. Elgoibarrera lehenengo aldiz etorri ziren.

Zapatuetako egoera bideratzearen, "Ertzaintzarekin egon gara eta egoerari buruzko diagnostikoa egitea erabaki dugu", azaldu du Etxeberriak. Gertarera eta portareneren inguruko datuak jasotzen ari dira. Hiru asteko epea jarri dute. Lanketa horek arazoaren inguruko datu konkretuak biltzeko balio izango du eta aurrerantzean neurri

berriak hartzeko. Lehenago ere jarri ziren martxan hainbat neurri eta oraindik ere indarrean daudela gogorarazi du Alfredo Etxeberriak. Boteiloaren fenomenoak azken hilabeteetan behera egin duela adierazi du.


Dena dela, alkateak "laguntza" eskatu die herritarrei, egoera bere onera etor dadin. Tabernari, guraso eta herritar eta udalaren arteko elkarlanari esker emaitzak lortuko direlakoan dago.



*Garraio eskaintza handitu zenetik gazte gehiagok ekin zion etortzeari.*

**«Ez dakit zein den soluzioa, baina zaintza handiagoa behar da»**

*Familiaren inguruko emakume bat*



*Udalaren arabera, azken aldian gazte gutxiago datoz Elgoibarrera.*

**Alkateak laguntza eskatu die herritar guztiei.**

## [ PROTAGONISTA ]



Anjel Ibarluzea

Pasa den asteburuan bukatu zen Euskadiko XVIII. hiru txirlo txapelketa Mallabian. Aurten, Anjel Ibarluzea elgoibartarrak jantzi du irabazlearen txapela hamazortzi txirlorekin. Gertutik jarraitu dio Iruzubietako Sabin Arriagak eta hamasei txirlorekin bigarren postua eskuratu du. Bikoteka ere sanmigeldarrak izan dira nagusi: Xabier Loiola eta Anjel Ibarluzeak osatutako bikoteka izan da onena 27 txirlorekin. Taldeka, bestalde, hirugarren postua lortu dute 41 txirlorekin. Azkenik, infantilen mailan, Julen Ibarluzea hirugarren postuan sailkatu da hiru txirlorekin.

## [ NOTIZIA ]

### Datorren urteko udarako amaituko dituzte Meka proiektuaren obrak

**M**eka proiektuaren obrak bide onetik doaz. Atzo goizean izan zen obra horien inaugurazio ekitaldia. Bertan adierazitakoaren arabera, datorren udarako eraikina amaituta egongo da. Arduradunen esanetan, "laster teknikari espezializatuak prestatzeko punta-puntako ikastetxea izango du Elgoibarrek".

#### Sei milioi euroko aurrekontua

Ikastetxeak bi zati izango ditu: batetik tailerra, hiru espaziotan banatua, egungo nahiz etorkizuneko hezkuntza beharrei erantzun ahal izateko; eta, bestetik, irakaskuntza eta idazkaritza funtzioei eskainitako alderdia, bi solairutan banatua. Kristalezko korridore luze batek lotuko ditu eraiki-



naren bi zatiosk, eta bertatik tailerreko hezkuntza-prozesu oro ikusi ahal izango da. Eraikinak 3.978m<sup>2</sup> izango ditu eta 300 ikasle inguru hartuko ditu. Proiektuak sei milioi euroko aurrekontua izango du gutxi gorabehera.

## [ ZENBAKIA ]

# 46

Upaiz-Zaharra izena dauka Pedro Muguruza parkeo kale berriak eta bertan, 46 aparkaleku berri egin dituzte. Horietatik 44 auto arrententzako dira eta bi elbarrituentzako. Doako OTA-TAO bidez funtzionatuko du eta datorren astean jarriko dute martxan. Ordu eta erdiz aparkatu ahal izango da.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Urrezko ezteiak egin dituzten zazpi bikote omendu zituzten Jubilatuen Astean. 50 urte elkarrekin! Ez daukate meritu makala, ezta? Gaur egungo bikoteek ez dute horrenbeste irauten. Ikus dezagun zein diren senar-emazte hauek: Luis Lopez eta Sofia Rodriguez; Jazinto Alzibar eta Mari Karmen Bastarrika; Candido Fernandez eta Alfonso Roman; Marcial Irazo eta Maria Navarro; Felix Agirrebeña eta Maria Larrañaga; Anjel Garate eta Arantza Zendoia; Julian Agirregomezkorta eta Aurora Blazquez. Zorionak!



## Elgoibarko etxegintza politika kritikatu du EAE-ANV alderdiak



**E**gungo Udalak enpresario eta konstruktorekiko daukan menpekotasuna salatatu du EAE-ANVk. Udalak "Etxegintza eroa" babesteko apustua egin duela azaldu du. Alor horretan bi eskari egin dizkio Udalari: batetik, Arau Subsidiarioak aldatzeko eskatzen dute, "92koak dira ELgoibarko Arau Subsidiarioak eta zaharkituta daude. Beharren arabera aldaketa puntualak egitea tranpa da". Bestalde, etxebizitza libreak eraikitzeko Babes Ofizialeko etxeen aitzakia erabiltzen dutela salatatu dute. Espekulazioa geratzeko eskatu du EAE-ANVk.

### Gune industrialak

Udaletik gune industrial gehiago behar direla adierazi dute, baina EAE-ANVk zalantzan jartzen du behar hori. Azken urteotan Elgoibar eta inguruetan egin diren industriguneak kontuan hartuta, EAE-ANVtik lur industrialen beharrari buruzko ikerketa sakon eta inpartziala egiteko eskaera luzatu dute.

Horrez gain, Elgoibarko EAE-ANVk independentzia aldarrikatu zuen joan zen zapatuan Plaza Handian. Herriar ugari bildu ziren "guk euskal nazioa, independentzia" lelopean.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Topagune bat sortzeko proposamena egin du PPK

Elgoibarren Topagune bat sortzeko proposamena egin dio PP alderdiko Javier Nuñezek Udalari. Zerbitzu horren helburua "Elgoibarko familiei erren seme-alabak babesten laguntzea da, eta bikotean zer gertatzen den kontuan hartu gabe, aita eta amarekin egoteko daukaten eskubidea bermatu nahi da", esan du Nuñezek. Azken batean, bikote banatuen seme-alabei laguntza profesionala emateko gunea izango litzateke PPK proposatutako topagunea.

### Euskarazko produktuen katalogoa

Euskara biziberritzeko egitasmoaren barruan eta Gabonetan opariak euskaraz egiteko kanpainaren baitan, euskarazko produktuen 4.500 katalogo banatu ditu Udaleko Euskara Sailak. Katalogo horietan eskuragarri egongo dira euskaraz ekoizten den musika, informatika material, bideo, DVD, liburu, aldizkari, jostailu eta jokoak. Kanpaina horren bidez, hizkuntzaren transmisioan eragin nahi da. Katalogoa sarean kontsultatzeko aukera ere badago [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) web gunean.

### Argazki lehiaketa

Morkaiko Mendizale Elkartearen eskutik, martxan da aurtengo argazki lehiaketa. Aurten ere, mendia eta argazkilaritza uztartuko dituzte. Partehartzaileek mendian ateratako argazkiak aurkeztu beharko dituzte; gehienez lau argazki bakoitzak. Lanak paperean edo formato digitalean aurkeztu daitezke, abenduaren 10a baino lehen. Erretratuak Morkaikok Errosario kalean duen egoitzan laga daitezke, edo bidal ezazue [morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbidera. Ondoren, hilaren 17tik 21era bitartean erakusketa egingo dute jasotako lan guztiekin Kultur Etxeko sotoan.

## HIESari buruzko informazio mahaiak jarriko dituzte bihar



Bihar, abenduak 1, HIESaren Nazioarteko Eguna izango da eta Errotatxo Elkarteko kideek gaixotasun hori buruzko informazio mahaiak jarriko dituzte Merkatu Plaza aurrean. Goizeko 11:00etatik aurrera, lazo gorriak eta HIESari buruzko esku-orriak banatuko dituzte. Herriarrei eskatu nahi diete, bestalde, etxeetako balkoietan izara zuriak lazo gorriarekin jartzeko. Errotatxo Elkartekoak erreleboaren zain daude oraindik, beraz, norbait elkartean sartzeko prest badago, deizalaz 943454014 (Maider) telefonora.

Abenduaren 3an euskararen eguna izango da.

## Zuk zer egiten duzu euskararen alde?

**SONIA RODRIGUEZ**  
Tabernaria  
29 urte



“Normalean tabernan egiten dut euskaraz. Bezeroei nik “egun on” edo “arratsalde on” esaten diet eta haiak, hori ikusita, euskaraz egiten didate.”

**CRISTOBAL AGIRRE**  
Estanpatzailea  
37 urte



“Nik kalean eta etxean egiten dut euskaraz. Euskaraz bizi naiz. Lanean ba... Algortan lan egiten dut eta kanpotar asko dago. Bestela euskaldunekin euskaraz ere han.”

**PAULA REY**  
Administraria  
31 urte



“Bai umearekin euskaraz egiten dut. Euskaltegian egin ditut ez dakit zenbat urte eta mol-datzen naiz. Umeekin hitz egiten dut. Nagusiekin, lotsatu. Lanean ere hitz egiten dut.”

**GAIZKA UNAMUNZAGA**  
ikaslea  
17 urte



“Etxean beti egiten dut euskaraz eta lagunekin ere. Dena euskaraz ikasi dut. Gure artean egiten dugu, baina beste batzuk, ez: etxean erdaraz egin eta kalean igartzen da.”

## [ BAI ala EZ? ]

Ekarriko du onurarik bioerregaiak?

**BAI %84**

**EZ %16**

“Bai, naturari eta ingurugiroari mesede handia egingo dio. Kutsadura jaitsiko da eta ozono geruzak ere hobera egingo duela iruditzen zait. Ideia ona da.”

“Ez. Oinarizko produktuak erregai moduan erabiltzen hasten badira, dena garestitu egingo da eta gure poltsikoek majo igarriko dute. Ez dakit zerbaiz konponduko den.”

ELA sindikatuaren arabera, EAEko langileen %30ek 1.000 euro baino gutxiago irabazten dute.

Datorren asterako... **Zure soldata 1.000 euro baino gutxiagokoa da?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.

Talasoterapia  
**Zelai**  
Z U M A I A

Hilabete honetan  
2 pertsonentzako zirkuito  
bat zozketatuko dugu  
**Zumaiko Zelai Talasoterapian.**  
Zenbat eta erantzun gehiago,  
aukera gehiago!

[www.talasozeilai.com](http://www.talasozeilai.com)



[ GOMENDIOA ]

## Taping neuromuskularra

**T**aping neuromuskularra Korean eta Japonian garatu zen 60.eko hamarkadan. Quiropraxia eta Kinesologia ardatz harturik, mugikortasun eta aktibitate muskularrean oinarritutako teknika berri horretarako bidea hartu zuten.



Tratamendua esparatrapuaren antzerako zinta batzuen bidez egiten da. Alergiaren kontrako zintak dira, %100 kotoizkoak eta azalaren transpirazioa eta malgutasuna baimentzen dute, zintarik egongo ez balitz bezala. Zinta horiek kolore desberdinetakoak izan daitezke: gorria, urdina, beltza edo azal kolorekoak. Muskuluak estimulatu edo erlaxatu nahi ditugun aukeratu behar da lehendabizi eta, horren arabera, kolorea aukeratu dugu. Zinta horiek, baita ere, odolaren zirkulazioa eta fluxu linfatikoa suspertuko dute, tentsioa orekatuz eta muskuluak erlaxatuz.

*Victoria Iraegi*



## [ OSASUN GIDA ]



### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

#### Kemen Belardenda

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua...

Medikuntza naturala, Bach loreak, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

#### Sanatana Dharma Yoga Elkartea

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93

(Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

#### Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

#### Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

#### Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### HORTZ KLINIKAK

#### Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com

weba: www.irale.com

### FISIOTERAPIA

#### Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etkez etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745

(Goiz eta arratsaldez)

Jausoro, 6 behea

#### Amalurra Fisioterapia

Ordubeteko tratamendu manualak.

Goiz eta arratsaldez.

San Frantzisko, 58 behea (Maalan)

Tel.: 943 53 14 63

#### Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlaxazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1

Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### ORTOPEDIAK

#### Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

#### Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

### MASAJISTAK

#### Victoria Iraegi

(Esku-terapiak: kiropraxia, drantzaile I infatkoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00

Gidan agertu  
nahi baduzu, deitu  
943 74 37 04 zenbakira

## ALKORTAKO II. IGOERA

# ALDARRIKAPENAK EURIPEAN

*Lasterketa gaztea da Alkortako igoera, baina aurrera tinko jarraitzeko asmoarekin iaz jaiotakoa. Pasa den zapatuan Mendaron inguruetako lasterkariak bildu ziren autodeterminazio eta erabakitze eskubidearen alde. Eguraldia ez zuten lagun izan, baina helmugara iritsi ziren 28 antxintxikariei ez zitzaien umorerik falta izan. Guztira 4,7 kilometro egin zituzten eta azkarrena Aulestiko Igor Urionabarrenetxea izan zen 22:42 minutuko denborarekin. Jarraian bertako bat, Jon Revert (23:02) eta hirugarren Javier Garduño (23:12). Dena den ez zen irabazlerik izan, helburua bestelakoa baitzen, aldarrikapenak lau haizetara zabaltzea kirola eginez.*

**M**endaroko udaletxe aurrean bildu ziren 28 lasterkari zapatu goiz ilun batean Alkortako bideari aurre egin nahian. Iaz baino sei antxintxikari gehiago irten ziren, eguna nabarmen petralagoa bazen ere. Askok errepikatu egin izan nahi zuten eta gehienak aurpegi berriak izan ziren lasterketa gazte honetan.

Eguna ez zen aproposena korrika egiteko eta euripean egin zuten ibilbidearen zati gehiena. Gogotsu irten ziren, dena den, eta iazko marka hautsi ez bazuten ere, gertu ibili zen Igor Urionabarrenetxea aulestiarra. Iazko markekin alderatuz gero, eritimo hobean bukatu zuten proba. Goiz atera ziren, goizeko 10:30ak inguruan 4,7 kilometroko ibilbidea egitera. Ordu erdi lehenago eman zuten izena eta Katxipitxa bideko maldak igo zituzten. Santa Krutz, antena, Itxasueta eta Berasaluze zeharkatu ondoren, Alkortan eman zitzaion bukaera. Irabazleak lore sorta bat eta txapela jaso zuen eta parte-hartzaile guztien artean argazki-familia bat atera zuten. Mokadu bat dastatzeko aukera ere izan zuten proba bukatzean.

Txakurrek ere merezi zuten, egindako esfortzua ondoan, euren "hamaietaketoxoa". Izan ere txakurrak ere izan ziren tartean, dortsala soinean zutela, preso batzuren orde. Ibilbide guztian zehar, euskal presoen aldeko aldarrikapena nagusitu zen giro alaietan. Mendaroko ezker abertzalea gustura geratu zen jendearen erantzunarekin.



Igor Urionabarrenetxea izan zen irabazlea.

### SAILKAPENA

Postua	Izena	Herria	Denbora	Postua	Izena	Herria	Denbora
1	Igor Urionabarrenetxea	Aulesti	22:42	15	Arkaitz Irureta	Elgoibar	27:47
2	Jon Revert	Mendaro	23:02	16	Mikel Etxabe	Elgoibar	29:37
3	Javier Garduño	Anoeta	23:12	17	Ignacio Perez	Elgoibar	29:38
4	Haritz Arrieta	Elgoibar	24:00	18	Aitzol Urain	Mendaro	30:07
5	Igor Rey	Mendaro	24:18	19	Jurdan Ezenarro	Mendaro	30:35
6	Iñaki Pelayo	Oñati	24:24	20	Txiki	Mendaro	30:35
7	Jon Larrañaga	Mendaro	24:46	21	Jales Antonio Alves	Mendaro	31:56
8	Igor Ezenarro	Mendaro	24:46	22	Andoni Amendia	Elgoibar	33:47
9	Sabin Zenarruzabeitia	Aulesti	24:54	23	Borja Rodriguez	Mendaro	34:06
10	Ibon Serrano	Elgoibar	25:22	24	Enez Ezenarro	Mendaro	35:32
11	Beñat Urain	Mendaro	25:40	25	Igor Egaña	Zumaia	35:50
12	Eduardo Uribe	Elgoibar	25:40	26	Jon Olaizola	Zumaia	36:06
13	Unci Salegi	Mendaro	25:50	27	Gartxot	Mendaro	42:24
14	Ibon Villanueva	Elgoibar	27:34	28	Otzalar	Mendaro	42:24





Ibon Villanueva maldan gora.



Parte-hartzaileen argazkia.



Hamaiketako egin zuten.



Mikel Etxabe eta Jon Larrañaga lasterketa hasi aurretik.



Ignacio Perez gogor aritu zen.



Txakurrek ere parte hartu zuten.



Jales, Mendaroko brasildarra, aldapan gora.

# Lagun

## UNAI ITURRIAGA

### «Bakoitzaren baitan haimaika gutar daude»

Durangarra gaur Herriko Antzokiko taula gainean izango da "Gu Ta Gutarrak" ikuskizuna aurkezten. Ohituta dago jendartean egoten, eta horrek ematen dio aurrera jarraitzeko bizipoza. Bat-batekoan tre-bea bada, hausnarketetan ere ez du parekorik bere burua etengabe proban jartzen duen bertsolariak

- **Gu Ta Gutarrak. Euskaldunok zilborrari begira egoten gara?**

Ez dakit beste batzuk baino gehiago begiratzen diogun zilborrari. Izen hori horrekin jokatzu jarri dugu. Gure kartelak eta diskoaren azalak agertzen du hamaika eragin ditugula eta ez bakarrik hemengoak. Era berean, bakoitzaren baitan hamaika gutar daude.

- **Saio guztietan "Gu Ta Gutarrak" ikuskizuna berezia da, inprobisaziorako joera dagoelako. Gaurko saioak zer eskainiko du?**

Badu oinarri bat, berdina dena saio guztietan, eta gero dago inprobisaziorako tartea. Eta gehienetan gutar deitzen diogun figura egoten da. Gutar gonbidatuaren berri ez dugu sekula ematen, gonbidatu bat delako eta ez duelako derrigortasunik etortzeko. Azkeneko momentura arte damutzeko aukera ematen diogu.

- **Durangoko azokarako prest zaude?**

Bai. Gainera diskoa aurkeztera joango gara. Han egon beharko dugu erakusmahaian saltzen.

- **Liburu berria aurkeztera noiz joango zara?**

Ez dakit, momentuz ez nabil horrelako lanetan.

- **Lanpetuta zabiltzalako?**

Batetik bai, baina bestetik denbora da ez naizela idazten jartzen. Irakurtzen gozatzun dut eta errespetua ematen du, irakurtzen dudana irakurri eta gero, idazten jartzeak.

- **Ausardia kontua da?**

Ez dakit, niretzako bertsoetan aritzea gauza serioa den moduan, idaztea ere gauza serioa da eta ni ez nabil horretan orain.



• **Zer liburu ari zara irakurtzen? Amurizarena akaso?**

Bai. Hasi berri naiz "Dinosaurioak horizontean" irakurtzen. Bere mundu fantastiko eta magiko hori hor agertzen da, lehendik ere pixka bat bertsotan ezagutu dioguna. Euskara maila aldetik ere bada-go zer ikasi.

• **Zein da zure ogibidea?**

Nire ogibide nagusia bertsolaritza da eta horren bueltako guztia, "Gu Ta Gutarrak" saioaren moduan. Horrekin bakarrik ezin liteke tira egin eta azkeneko urteetan gidoigintzako lan batzurekin osatu eta tartekatatu dut.

• **"Iturriaga iturria da", esan zuen Jon Sarasuak. Nor zara?**

(*Barreak*). Auskalo! Nork daki galdera horri erantzuten?

• **Bertso afariak guxiago egiten dituzu?**

Ez dakit gutxiago edo gehiago. Gertatu da lauzpabost urtetan murriztu dela jaialdietako parte-hartzaileen kopurua, eta beharbada ugaritu da bertso afariena. Horietan bi bertsolari izaten dira eta zailagoa da bikote batean sartzea, lau-koetan edo seikoetan baino. Konforme nago jasotzen ditudan deiekin.

• **Ez da, hortaz, zure burua zaintzeko erabaki baten ondorioa?**

Ez, ni prest nago nire burua izorratzen jarraitzeko bertsoengatik baldin bada.

• **Tipo diziplinatua zara?**

Beno, izatez, eta orain dela gutxi arte, ez, guztiz kaotikoa. Izakeraz kaotikoa naiz baina lortu dut diziplina minimo bat lanak aurrera ateratzeko, bertsoetik kanpokoak batez ere. Eta azken aldian nahiko konforme nago diziplinarekin; nahiko goiz jaiki ohi naiz.

• **Bertsolaritzak bereziki lagunak eman dizkizu?**

Denetatik, lagun asko, ezagun asko, gure herriak beste modu batera ezagutze-ko modu bat, ogibidea, sufrimendua, plazerra, mina... Nire harremana bertsolaritzarekin jendaurrekotasuna da.

• **Eta publikoak badaki nolakoa zaren?**

Hainbat saio entzun dituenak seguruki asko naizenaren zati bat jaso du, zenbateraino auskalo. Ez da bertsolarien arazoa bakarrik. Jendaurrean denok gara modu batean, eta egoera intimo batean beste modu batean, baina ezaugarriak komunak dira.



## «Ez naiz baikorra, baina nahiago nuke baikorragoa izan»

• **Bertsolaritza bat-batekoa denean, memoria ere bada bat-batekoa?**

Bertsolari bakoitzaren arabera. Ni ez naiz gogoratzen dituen horietako bat. Igor [Elortza] gai da bertso saio bateko hainbat bertso botatzeko. Ez da bakarra. Nik ez dut gaitasun hori, ideiekin, eta azkeneko puntuekin, aldiz, bai.

• **"Bertsolariok ez dugu bata bestearen kontra abesten". Noren alde egiten du-zue?**

Saioaren alde, printzipioz. Eta noski, saioaren aldeko horretan gure buruaren alde.

• **Tipo baikorra zara?**

Ez, nahiko nuke izan baina ez da nire ezaugarri nagusienetako bat.

• **Gero eta eszeptikoagoa zara?**

Ezkor samarra izan naiz beti, ez da ja-

rera intelektual bat, ezagutzen nautenek badakite. Nahiko nuke baikorragoa izan.

• **Hortaz, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia, noizko?**

Ez daukat inolako anbizioirik horretarako.

• **Bertsoak erdaraz egin dituzu?**

Bai.

• **Eta zelan?**

Ongi egiteko hizkuntza kontrolatu behar da baina traba batzurekin egiteko ez dut arazorik izan.

• **Potorik egin zenuen?**

Ez, gaztelaniaz eta ingelesez ez.

• **Bertsoa lagatzekotan inoiz egon al zara?**

Ez. Momentu hobeak eta txarrak pasatu ditut, baina uztea ez zait pasa burutik.



## DUO PLAENTXI MUSIKARIAK

# «Gure ahotsak daude diskoan, ez dugu inor engainatu»



*Harro daude esku artean euren lehenengo diskoa dutela. Kosta zaie Duo Plaentxi izeneko lana kaleratzea, hemeretzi urtez bikote izan eta gero. Uste zuten estudio batean sartzea nekagarria izango zela. Baina di-da batean grabatu zuten. Emaitzarekin pozik daude. Gainera, askok Ameriketara duten lagun eta familia artekoie oparitu omen diete.*

### ▶ Zergatik ez duzue lehenago atera?

Nagikeriagatik. Familiak animatu gaitu. Grabaketaren mundua ez genuenez eza gutzen, ez ginen ausartzen. Azkenean, ez da hainbesterako izan. Ondarroan grabatu genuen hamabi orduan. Gure ahotsak daude disko honetan, ez dugu inor engainatzen.

### ▶ Etxekoen laguntza izan duzue diskoa kaleratzeko garaian?

Azalaren diseinurako bai. Ez dugu aberats bihurtzeko asmorik izan. 2.000 disko kalera atera eta gero, gastuak ordaintzearekin konforme gaude.

### ▶ Hasieran musu-truk hasi zineten?

Bai, batek esaten zigun ezkontza bat zuela, besteak ere bai... Lehenengora joan ginen, baina horrekin eten beharra zegoen. Zerbaiten mesedetan baldin bada, edadetuen egoitzetarako adibidez, orduan musu-truk abesten dugu.

### ▶ Ez daukazue ordezkaririk?

Ez dugu haien beharrik. Ermuko batek, guri baimena eskatu gabe, esaten zuen gure ordezkaria zela. Lotsabako bat zen.

### ▶ Ez zarete beti bikote izan. Zein bila-kaera izan zenuten?

Sei lagun aurkeztu ginen Plaentxiko ko-

adriren lehiaketa batean eta Ines Maiztegi-rik esan zigun musikan batera hasteko.

### ▶ Atera begiratuta, zein oroitzen da-torkizue gogora?

Mocedadesekin abestu genuen behin Markinan. Hasiberriak ginen denok.

«Primeran pasatu dugu elkarrekin, musika mundua zoragarria da»

### ▶ Bitxikeriaren bat?

Lekeitioko Turismo Egunean jo genuen. Bertan zegoen Fraga Iribarne, garaiko Informazio eta Turismo ministroa. Hirukote izateari laga genion garai hartan. Gironatik Kadizera joateko eskaintza egin ziguten, gure katxea galdetu eta gero. Inesek ez

zuen gurekin jarraitu. Gazteegia zen, 17 urte eskas. Garai hartan Isabel Pantoja, Marian Conde eta horiek amarekin ibiltzen ziren batetik bestera. Nork daki bira horrekin jarraituz gero zer pasa zitekeen.

### ▶ Ez duzue «Malagueña salerosa» diskoan bildu. Zer dela eta?

Ez zegoen lekurik. 59 minutu justuko disko batean zaila da dena lotzea.

### ▶ Bigarren disko baterako laga behar duzue, hortaz...

Badago tipo bat Eibarren 24 abesti bildu eta saltzen ibili dena. Sei euroren truke saldu zituen.

### ▶ Nola konturatu zineten?

Behin taberna batean esan ziguten, diskoaren azala erakutsi ondoren. Nork daki, agin mesede bat eta guzti egin zigun. Ez dugu uste dirurik irabaziko zuenik.

### ▶ Salmenta ondo doa?

Agian beste tiraldi bat botako dugu.

### ▶ Diskoko zein abesti duzue gogokoen?

*El crucifijo de piedra.*

### ▶ Ongi pasatu duzue abesten?

Primeran. Musika mundua zoragarria da. Eta lagun handiak gara.

## Jose Antonio Osoro "Katzok" jaso du sekula ere ahaztuko ez duen omenaldia

Sekretupean gorde nahi ziren omenaldiaren inguruko detaileak omendua ezustean harrapatu nahian. Eta helburua bete egin zen. Jose Antonio Osoro "Katzok" Musika Bandan 50 urte bete zituela ospatzeko, Santa Zezilia egunean egitarau berezia prestatu zuten antolatzaileek. Kalejiraren ostean, Herriko Antzokia goitik behera bete zen harrera beroa emateko eguneko protagonista zen bandako zuzendariari.


Mautxita txarangak, herriko dultzaine-roak, Haritz Dantzari Taldeak eta hainbat eragilek Osororen alboan egon nahi izan zuten. Udaletxe aurrealdean auresku batek ongi etorria eman zion. Gero alderdi politikoetako ordezkariak eta Markel Olano ahaldu nagusia lekuko zirela, alkateak urrezko intsignia ezarri zion. Lehendakariak ere agertu zion bere esker ona gutun baten bidez. Astebukaera hunkigarria eta ahaztezina izan zen Osororentzat eta



oroigarri eta agur beroak jasotzeaz gain, bere maisutasuna erakutsi zuen beste behin taula gainean. Lau pieza berri estreinatu zituen Udal Musika Bandak eta entzuleek hogeituz minutuko txalo zaparradarekin eskertu zituzten musikariak.

Omenaldia eta gero, Katzok adierazi zuen ilusioz jarraituko duela bandan. Hurrengo hitzordua Eibarren dute.

### Guillermo Andonegiren eskulturak Kultur Etxean



"Antzinako ikur euskaldunak" izeneko bildumaren serie bat ikus daiteke Kultur Etxean abenduaren 15a bitartean. Andonegiren erakusketan, eskultura hauek daude ikusgai: "Bisontea", "Orena", "Laiak", "Bordako gizona", "Tikuhari III", "Sentauroa" eta beste hainbeste, Euskal Herriko ohituren, historiaren eta oro har kulturaren adierazgarri. Lanek argiaren eta itzalaren arteko oreka perfektua adierazten dute, aurreko bildumean bezala. Andonegiren eskultura lanak kulturaren irudiak iradokitzen ditu. Eskultorea pieza figuratiboetatik abiatzen da, xehetasunez landutako forma abstraktuetara iristeko. Formatu handiagoak erabiltzen ditu orain, baita beste material batzuk ere. "Oreina" lana da salbuespena. Eskultura hori egiteko burdina erabili zuen, lehen serieko eskulturretan bezala.

### Eriz magoa astelehenean izango da Udal Liburutegian

Magia zaleek datorren astelehenean hitzordua dute arratsaldeko 17:00etan Udal Liburutegian. Eriz magoak magia joko sorta ederra azalduko du.

### "Historias de animales" txotxongiloen ikuskizuna

Indiako Dolls Theatre Txotxongilo taldeak Herriko Antzokian "Historias de animales" izeneko emanaldia taularatuko du abenduaren 2an. Euskal Herriik bira bat egiten ari dira eta besteak beste Tolosako Txotxongilo Jaialdian parte hartu dute. Sarrerek leihatilan salgai izango dira.

## Zine Klubak ziklo berri bat estreinatuko du



Punta-puntako nazioarteko lehiaketetan zeresan handia eman duten hiru film iragarri ditu Ongarri Zine Klubak. Abenduaren 13an, iaz Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra lortu zuen "Media luna" emango dute. Kurdistango musikari ibilitari batzuen bidaiaren berri ematen du, zuzendariak, testuinguru politikoa ahaztu gabe. 20ean, Veneziako iazko hamibitxia, "Naturaleza muerta" ikusi ahal izango dute zinezaleek, Jia Zhang Kek Txina garaikidearen inguruan egin duen berrikusketa. Eta azkenik, urtarilaren 3an, Tony Gatlif frantziarraren "Transylvania"ren garaia izango da.

## Tratu txarren testigantzak jaso ditugu

*Urtetik urtera gehituz doa tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen kopurua. Egoera hori salatzeko eguna izan zen azaroaren 25ean: Genero Indarkeriaren Kontrako Eguna. Han eta hemen egin ziren aldarrikapenak, modu desberdinetan baina helburu bakarrekin. BARRENen ere tarte bat egin nahi izan diogu egun horri. Mari Jose Garmendia psikologoaren bitartez tratu txarrak jasan dituzten bi emakume elgoibartarren testigantzak jaso ditugu.*

### Noiz eta nola hasi ziren tratu txarrak?

"Ezkon gauean konturatu nintzen ez zela gizon ona; ez zela pertsona ona, gau hartan hasi baitziren irainak eta dominazioa. 25 urtez ezkondu, bi alaba dauzkat. Orain, 55 urterekin, banatzeko indarra izan dut. 25 urte makurtuta, gutxietsita, psikologikoki irainduta, ekonomikoki txantajeatuta. Orain libre sentitzen naiz, ez dut nire gainean inor sentitzen, nire arima aske dago". (Elena 55 urte)

"Ezkondu aurretik asko haserretzen zen baina lortzen genuen konpontzea. Orain konturatzen naiz nik amore emanda izaten zela. Ezkondu ondoren etxeko lanetan asko eskatzen zidan. Berehala hasi ziren irainak: zikina nintzela, emagalduta nintzela... Sexu harremanetan ere oso desgoki azaltzen zen; gogorik ez banuen iraindu egiten ninduen, beste batekin nengoela esaten zidan... beti era mingarrian. Aurre egiten banion, bere haserrea areagotu egiten zen eta behin baino gehiagotan bultzakada, iletik tira eta muturrekoren bat ere ematen zidan". (Maria 26 urte)

### Jendeak igartzen zuen zerbait?

Jende aurrean lan egiten nuen, baina inor ez zen konturatzen, nire helburua jendeak ez jakitea zen. Lotsatu egiten nintzen nire buruari ezeztatu egiten nion benetako egoera". (Elena)

"Nire lankideak asko estimatzen ninduen baina ez nuen nire egoera adierazten, lotsa eta beldurra sentitzen nuelako."

### Noiz erabaki zenuen laguntza eskatzea?

"Harrapatuta sentitzen nintzen, garbi nuen nire errua ez zela, baina umeengatik nire lan egoeragatik... egoera berean jarraitzen nuen. Nire benetako errua hau izan da: egoera horri eustea, nire senarra-

ren aurrean burua makurtzea. Ez dut laguntzarik eskatu, nire erabakia izan da eta banatzea erabaki dudanean nire aitak eta anai-arrebek lagundu didate. Alabak oso urruti bizi dira bere familiarekin, eta harrituta, baina ulertzen didate. Ez dut salaketarik jarri, ez dut nahi. Erabaki sendo bat hartu dut eta nahikoa deritzot". (Elena)



"Hirugarren eraso fisikoa jasan nuenean salaketa jarri nuen Ertzantzarenean. Handik Udaleko Gizartekintza zerbitzura bidali ninduten eta hango teknikariak tratu txarrak bideratzeko programa azaldu zidan: lege aholkuratzitza eta laguntza psikologikoa eskaini zidaten. Beste saiakera bat egin genuen gure harremana berreskuratzeko, barkatu egin nion eta elkarrekin jarraitu genuen, jarraipen psikologiko batekin. Berak eta bere familiak inoiz ez didate salaketa jartzea barkatu. Hila-bete batzuk pasa ondoren berriro hasi ziren irain psikologikoak. Indarrik gabe nengoan, seme txiki batekin... baina banatzea

erabaki nuen eta halaxe planteatu nion. Hasieran ondo hartu zuen baina orain borroka izugarria daukagu: salaketak bata besteari, gezurrak, umea erdian...". (Maria)

### Beldurtuta bizi zara?

"Ez, ez diot beldurrik, nik alde egin dut eta lasai nago. Libre sentitzen naiz, nire bizitza berreskuratu nahi dut". (Elena)

"Beldurtuta eta antsietateak jota nago. Borroka honek nirekin amaituko du. Ez dut lorik egiten, jateko gogorik ez daukat, antsietate atakeak ditut... Edozer gauza egiteko gai dela konturatu naiz. Umea kentzeko asmo garbia du eta horretarako nire kontrako gezurrak asmatu eta salatzen ditu. Zer egingo dut umea kentzen badit?". (Maria)

### Bukatuko dira inoiz emakumeen kontrako tratu txarrak?

"Hori izan beharko litzateke gizartearen helbura. Gizon batzuk planteamen-duak aldatu behar dituzte: emakumeak defendatzeko eta eskubideak aldarrikatzeko heziketa eta indarrak azaldu behar dituzte". (Elena)

"Oso ezkorra naiz. Nire kasuan behintzat, ez nau inoiz bakean utziko, beti izango dut etsai, eta horrek izugarriko beldurra ematen dit, batez ere nire seme-txoagatik. Epaileak jarritako neurriak ere ez ditu errespetatzen. Bukatuko ote da noizbait infernu hau?" (Maria)

Eraso kasuetarako telefonoak:

- Larrialdiak: 112
- Gurutze Gorria: 943 743 864
- Osasun zentrua: 943 032610
- Mendaroko Ospitalea: 943 032 800

Elkarriketa osorik irakurtzeko:  
[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## ATLETISMOA

### Donostiako maratoian Jose Antonio Ruiz izan da elgoibartarrik azkarrena

**B**ehobia-Donostiako proba herrikoari Donostiako maratoiak hartu zion lekukoa pasa den astebukaeran eta errekorra haustea zaila bazen ere, maila ona erakutsi zuten antxintxikariek. Zortzi elgoibartarrek parte hartu zuten eta finena Jose Antonio Ruiz izan zen. Iker Mayora mendarorara, aldiz, bederatzigarren postuan heldu zen. Bigarren Unai Narbaiza iritsi zen, 2:45:14ko denboran osatu eta gero. Ondoren Asier Arrieta (270. postua, 2:55:29), Xabier Bergaretxe (291, 2:56:44), Imanol Santos (309, 2:56:44), Jesus Mari Agirretxe (500, 3:02:98), Mikel Agullo (1012, 3:18:10) eta azkenik, Alberto Garate (1089, 3:20:40).

Bestalde, elgoibartar gehiago hurbildu ziren Azkoitiako III. lasterketara. Euskal Herriko nahiz atzerriko 399 korrikalari (51 neska



eta 348 mutil) bildu ziren 10 kilometroko ibilbidea egiteko, horien artean hamasei elgoibartar. Alberto Gil izan zen lehena 36:24ko denborarekin. Nesketan, berriz, Ainhoa Lendinez izan zen azkarren.

### Estatuko txapeldunorde geratu da esgrimako taldea



Wingsun eskolako Joseba eta Xabier Padro, Unai Arrieta eta Agustin Ruiz Madrilen egin den Estatuko Esgrima txapelketan lehiatu ziren eta oso maila ona erakutsi ondoren, txapeldunorde geratu ziren. Azkoitian bizi den Ruiz Estatuko txapeldun geratu zen bere pisan eta txapeldunorde absolutuan. Ikusleek txalo zaparrada batekin eskertu zuten bere ahalegina.

### Nazioarteko Xake Txapelketa abenduaren 16tik aurrera, jokoan

Xakeko Euskal Federazioak, Udal Kiroi Patronatuak eta Zubi-Ondo elkarteak antolatutako, Nazioarteko XVII. Xake Txapelketa abenduaren 10etik 16ra izango da, Kultur Etxean. Parte-hartzaileen artean nabarmentzekoa da Kanariar Uharterko Sabrina Vegaren (azaroan Armenian jokatutako Munduko txapelketan 10. pos-

tua lortu duena eta Estatuko selekzioko kidea) eta Mikel Hueifa nafarraren (Estatuko jubencil mailako txapelduna) partaizaidetza. Lehiaketa horrekin batera, Elgoibarko Eskola Kirola elkarteak antolatuta, benjamin, alebin eta infantil mailako Xake txapelketa jokatuko da abenduaren 16an herriko gaztetxoaren artean.

### [ EMAITZAK ]

#### ESKUBALOIA

Tecnifuelle 16 - Ereintza 11 (Senior neskak)  
 Arrate 29 - Pneumax 24 (Jubencil mutilak)  
 Arrate 48 - Tecnomeca 13 (Kadete mutilak)  
 Cometel 24 - Bera Bera 14 (Jubencil neskak)  
 Egia 4 - Elgoibar 30 (Kadete neskak)  
 Aterpe 36 - Aloña 1 (Infantil neskak)  
 Aloña 12 - Caldereria Lili 5 (Infantil neskak)  
 Casa Astigarraga 18 - Urola 1 (Infantil neskak)  
 Bankoa 4 - Arrate 40 (Infantil mutilak)  
 Hotel Txariduna 29 - Bergara 14 (Inf. neskak)

#### ARETO FUTBOLA

La Belloita 5 - Kenci 8 (Euskal Ligak)  
 MCM 0 - Elgoibar 4 (Jubencilak)

#### PILOTA

Lagunak 19 - Antiguako 22 (Jubencilak 1ª)  
 Lagunak 22 - Olalde 10 (Senior)  
 Bergara 22 - Lagunak 5 (Senior 1ª)

### [ AGENDA ]

#### PILOTA Ikastolako frontoian

**Barixakua, 30**  
 21:15 Lagunak - Azkoitiako (Kad. 2.)  
 22:00 Lagunak - Aurrera Saiaz (Senior)

#### FUTBOLA Mintxetan

**Zapatua, 1**  
 12:30 Elgoibar - Arrasate (Jubencilak)  
 16:00 Elgoibar - Intxaurdi (Nesk., igoera fasea)  
**Domeka, 2**  
 9:45 Eibar - Aretxabaleta (Alebinak)  
 9:45 Aloña Mend - Bergara (Alebinak)  
 11:00 Lagun Onak - Arrasate (Alebinak)  
 11:00 Elgoibar - Urko B (Alebinak)

#### ESKUBALOIA Kiroldegian

**Zapatua, 1**  
 10:00 Aterpe - Aloña (Infantil neskak)  
 11:30 C. Lili - CAstigarraga (Infantil neskak)  
 17:30 Pneumax - Urdaneta (Jubencil mut.)  
 19:00 Tecnomeca - Urdaneta (Kadete mut.)  
**Domeka, 2**  
 9:30 Elgoibar - Aloña Mendi (Kadete neskak)  
 11:00 Cometel - Aloña Mendi (Jubencil neskak)

### [ IDARRAGA SARIAK ]

#### HAUNDIko jokalaririk erregularrena 07/08

Jokalaririk	Puntuak
1. Mujika Muxi	7
2. Aitzol Manterola	16
3. Guinea	9
4. Kerman	7
5. Navarrete	24

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

▶ Pisua salgai Pedro Migel Urruzuno kalean. Partikularretik partikularrera. Ekonomikoki oso interesgarria.

☎ **666496659**

▶ Pisua salgai Santa Ana 3an. 3 logela, aldagela, komuna, sukalde, egongela. Berritua, altzariekin.

☎ **669006421**

▶ 45m<sup>2</sup>ko apartamentua salgai erdialdean. Logela bat, sukalde amerikarra. Oso argitsua, bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpora, trastero handia aparte.

☎ **678542436**

▶ Etxe handia salgai Plazan. Berritua. Prezio interesgarria.

☎ **619409273**

▶ Etxea salgai erdialdean. Hiru logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteleku txiki bat.

☎ **637124868**

▶ Etxea salgai San Inazio kalean. 56m<sup>2</sup>. Ganbara. Dena kanpoalde-  
ra begira. ☎ **687051789**

▶ Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukalde berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Fatxada eta igogailua berritua. Altzariekin sal-  
tzen da. ☎ **628115677**

### ALOKAIRUA

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan.

☎ **646844513**

▶ Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. ☎ **608008790**

▶ Bi logelako etxea alokatzen da.

☎ **645048110**

▶ Logela alokatzen da.

☎ **943741881**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

▶ Garajea salgai kiroldegi aurrean. Prezio onean. ☎ **696029312**  
(Juan. 18:00etatik 21:00etara)

▶ Garajea alokairuan Pista Beltzean. Sarbide erraza. 60 euro.

☎ **659386403**

▶ 24m<sup>2</sup>ko garaje itxia alokatzen da Urasandin. ☎ **943741527**

▶ Marradun garajea salgai Urasandin, Deba kalean. Madalako zubitik gertu.

☎ **658735769**

▶ 200m<sup>2</sup> eta 400m<sup>2</sup>ko pabilioiak salgai Sigman. Beheko solairuan.

☎ **619409273**

▶ Garajea alokatzen da Plaza Handitik gertu. ☎ **628764686**

▶ Garaje marraduna alokatzen da erdialdean, Santa Ana 2an.

☎ **943743427**

## [ BESTELAKOAK ]

▶ Kardantxilo mistoak salgai. Kaiolarekin. 60 euro.

☎ **661225149**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea dendan lan egiteko prest. Bitxi-dendan esperientzia.

☎ **658764984 (Begoña)**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628405827**

• Emakumea garbiketarako egiteko prest. ☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)**

• Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko prest.

☎ **606169667**

• Ingeles klaseak ematen dira. Ingeles komertziala, maila guztiak.

☎ **696964069**

• Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest.

☎ **699813826**

• Mutila harategian lan egiteko prest. ☎ **610913340**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu, sukaldari, garbitzaile edo kamarera lanetarako prest.

☎ **943740367**

• Arratsalde edo gauz lan egingo nuke. Umeak zainduz, garbiketak... ☎ **671476869**

• Mutila erai-kuntzan lan egiteko prest. Zulagailuarekin esperientzia.

☎ **678022125**

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943742575**

• DBH eta LH klase partikularrak ematen dira. ☎ **943531654**

• Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest.

☎ **678939382**

• Matematika, euskara eta ingeles partikularrak ematen ditu Lehen Hezkuntzan. ☎ **686197248**

• Neska euskalduna garbiketarako egiteko prest. ☎ **661101160**

• Euskara errefortzuetarako LH eta DBHko klase partikularrak ematen dira. ☎ **943531654**

### ESKAINITZA

• Rock musika taldeak baxujolea behar du. Sonic Youth eta Pixies taldeen tendentziak.

☎ **628095651**

• Kamareroa behar da.

☎ **943743196**

• Sukaldaria behar da.

☎ **943743196**

• Bitxiak, baruko erropak eta lurin produktuak saltzeko jendea behar da. Irabazi onak. Ez da esperientziarik behar. ☎ **607824892**

• Zubacor enpresarako tailer-nagusia behar da. Curriculum Elgoibarko 50 postakutxatilara bidali.

• Kamareroa behar da barran eta mahaiak zerbitzatzen lan egiteko.

☎ **635751642**

• Eibarko harategi baterako pertsona behar da.

☎ **630557889**

• Sukaldaria behar da.

☎ **943743196**

### ABISUAK

• San Inazio kalean txamarra bat aurkitu dut. Udaltzaingoa dago.

• Sergio Tacchini markako betaurrekoak agertu dira Gloria okidegiaren aurrean. Jabea bertatik pasada dadi.

## [ZORIONAK]



▶ Zorionak, **David!** Berandu baina akordatu gara! 7 urte bete zenituen hilaren 22an, Daniel eta Sarayren partez.



▶ Zorionak, **Hodeil** 3 urte beteko dituzulako etxekoan partez, oso ondo pasa ezazu.



▶ Zorionak, **Nahial** Zenbat urte egingo ditru Ronda kaleko musugorrik abenduren 6an? Zazpi! Aitxikamama, Maite eta tio.



▶ Zorionak, **David**, etxekoan partetik eta bereziki Lorenaren partez.



▶ Zorionak, **Aitzolako gizontxo**, zure 8. urtebetetzean, aita, ama, Eider eta gainontzeko senide guztien partez.



▶ Zorionak, **Joni** Abenduaren 2an 8 urte betetzen dituzu-eta. Musu bat familiakoan partez.



▶ Zorionak, **Jakes!** abenduaren 9an delako zure urtebetetzea. Patxo handi bat etxekoan partez.




▶ Zorionak, **Ibail** urte bat beteko duzulako ostiralean. Muxu handi bat etxekoan partez.



▶ Zorionak, **June**, hilaren 20ean urte bat bete zenuelako. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



▶ Zorionak, **Galder**, ondo pasa zure urtebetetze egunean, familiakoan partez.



▶ Zorionak, **Ekain**, 4 urte bete dituzulako, muxu handi bat familia guztiaren partez.



▶ Zorionak, **Kristian Aranar!** hilaren 27an 8 urte bete dituzulako, familia guztiaren partez.



▶ Zorionak, **pitxirina**, azkenean iritsi da, muxu piloa etxeko denon partez.




▶ **Txakoli txakoli...** Zorionak Mendaroko lagunen partez, ondo pasa eguna.



▶ Zorionak, **Jose**, familiako guztien partetik.



▶ Zorionak, **Andres!** zure gurasoen partetik, muxu handi bat.



▶ Zorionak, **Itigo Armendia!** datorren astelehenean 9 urte betetzen dituzulako, zure familia eta bereziki Noraren partez.



▶ Zorionak, **Ainhoa**, etxeko guztien partez, azaroak 20ean egin zituen eta urteak.



▶ Zorionak, **Julian Ayerdi**, hilaren 5ean urteak egingo dituzulako, etxekoan eta batez ere Garazi eta Iruneren partez.



▶ Zorionak, amama Pura, etxeko guztien partetik.



▶ Zorionak, **Sofia Arregui**, 7 urte betetzen dituzulako, muxu handi bat pitufa familia guztiaren partez.



▶ Zorionak, **Nagore!** bihar bi urteko egingo dituzu eta. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



▶ Zorionak, **Julen!** abenduaren 4an 6 urte egingo dituzulako. Urte guztia itxoi-ten egon ondoren, azkenean iritsi da eguna.



▶ Zorionak, **Jose Amizabalaga**, 94 urte betetzen dituzulako, Nerea eta Albaren partez.



▶ Zorionak, **Antoni eta Bixente**, zuen Urrezko Eztaietan, familia guztiaren partez, bereziki iloba Aitor eta Jonen partez.



# Zerbitzuak



## [ OKINDEGIA ]

### ABENDUA

- 1 igandea IZAGIRRE
- 6 osteguna FOTERO
- 8 zapatua IBARRENEA
- 9 igandea BOLINTXO



## [ FARMAZIAK ]

- 30 **GUARDIA** 24 ORDUZ
- 1 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 1 Etxeberria (*Errosario*)
- (\* *Goizez Fernandez*)
- 2 Fernandez
- 3 Yudego
- 4 Zabaleta
- 5 Etxeberria (*Errosario*)
- 6 Etxeberria (*Errosario*)
- 7 Bidasolo
- 8 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 9 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 10 Fernandez
- 11 Yudego
- 12 Zabaleta
- 13 Etxeberria (*Errosario*)
- 14 Ibañez

### KANPOKO FARMAZIAK

**IBANEZ**  
Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84

\* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.*



## [ TELEFONOAK ]

### OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
DYA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

### UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Hazienda	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udalzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

### GARRAIOAK

Eusko Tren	943 74 04 42
PESA	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

### BESTELAKOAK

BARREN astekaria	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroledegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

### IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HII (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
• Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31



## [ AUTOBUSAK ]

### ELGOIBAR - DONOSTIA

**Astegunak:** 6:55, 7:15, 7:45, 8:15, 8:35, 9:05, 10:45, 13:45, 14:05, 14:45, 15:45, 18:45, 20:45  
**Larunbatak:** 7:05, 7:15, 9:05, 10:45, 11:05, 13:45, 15:05, 18:40, 19:05  
**Igandeak eta jaiegunak:** 9:05, 9:45, 13:05, 13:40, 17:05, 18:40, 20:40, 21:05

### DONOSTIA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:15, 7:00, 8:00, 9:30, 12:30, 13:00, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:00, 19:30, 20:45, 21:00

**Larunbatak:** 8:00, 12:00, 12:30, 15:00, 16:00, 17:30, 19:30, 20:45, 21:00  
**Igandeak eta jaiegunak:** 8:00, 12:00, 12:30, 16:00, 19:30, 20:00, 20:45.  
**PESA: 902101210**

### ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

**Asteburuk eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

### MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdira. Azkena 21:55.

**Asteburua eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

**EUSKOTREN: 902 543 210**

## [ 30 BARIXAKUA ]

### 21:15 GU OTA GUTARRAK

Unai Iturriaga eta Igor Elortza, 22:15ean Herriko Antzokian. Sarrerak salgai Kultur Etxean.

## [ 1 ZAPATUA ]

### 11:00 HIESARI BURUZKO MAHAIA INFORMATIBOA

Merkatu plaza aurrean. HIESaren kontrako nazioarteko eguna.

## [ 2 DOMEKA ]

### 10:00 MENDI IRTEERA


Ikastolako gurasoek antolatuta txangoa Morkaira.

### 16:30 TXOTXONGILOAK

Indiako "Dolls Theatre" taldeak "Animalen istorioak" izeneko ikuskizuna eskainiko du Herriko Antzokian

# SINOPSISIAK

## «El Orfanato»



## [ 3 ASTELEHENA ]

**17:00 ERIZ MAGOA**  
Udal liburutegian.

## [ 10 ASTELEHENA ]

**11:00 INTERNET IKASTAROA**  
Oinarrizko ikastaroa IT-KZgunean.  
Izena emateko, 943 748 828.

**16:00 XAKE TXAPELKETA**  
Nazioarteko XVII. Xake Txapelketa  
Kultur Etxean.  
Antolatzaileak: Kirol Patronatua,  
Zubi Ondo Elkarte eta Euskadiko  
Xake Federazioa.

## [ 11 MARTITZENA ]

**17:00 "ZIENTZIA IRRISTAKORRA"**  
Zientiaren heroiak taldea, Udal  
Liburutegian.

## [ 14 BARIXAKUA ]

**20:00 ILUNABAR LITERARIOA**  
Irakurketa dramatiko eta poesia  
errezitala Idazle eskolako kideen  
eskutik, Kultur Etxeko sotoan.

## ZINE KARTELEDIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«El Orfanato»  
1, zapatua: 19:00-22:15  
2, domeka: 19:00-22:15  
3, astelehena: 21:30  
«Los seis signos de la luz»  
6, eguena: 19:00  
9, domeka: 16:30  
«Un funeral de muerte»  
6, eguena: 22:15  
7, barixakua: 22:15  
8, zapatua: 19:00-22:15

9, domeka: 19:00  
10, astelehena: 21:30  
«Retrato de una obsesión» (Z.K.)  
30, barixakua: 22:00  
«Media luna» (Z.K.)  
13, eguena: 21:30  
«Leones por corderos»  
14, barixakua: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

«13 rosas»  
1, abendua 17:00-19:30-22:15  
2, domeka 17:00-19:30-22:15  
3, astelehena 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen  
emaldien aldaketen erantzukizunik.

## «Los seis signos de la luz»

Zuzendaria: J.A. Bayona  
Antzezleak: Belen Rueda eta Fernando Cayo.  
Laura (Belen Rueda) txikitan hezi zen umezurtegiara  
itzuliko da bere familiarekin ezinduentzako egoitza  
bat osatzeko asmoz. Haren semea joko misteriosu  
batzuetan murgilduko da, baina hasieran jaramon  
gehiegirik egiten ez badio ere, konturatuko da ume  
joko horien atzean mehatxu krudelak daudela.  
Laurak leku berezi horren iraganeko aztamak miatu  
beharko ditu bere semea berreskuratu nahi badu.  
Horretarako laguntza eskatuko du bere helburua  
nola edo hala lortzeko.



Zuzendaria: D. L. Cunningham.  
Antzezleak: Alexander Ludwig eta C. Eccleston  
Bizitza zeharo aldakuko zaio Will izeneko gazte  
bati, konturatzen denean Iluntasunaren aurka borroka  
egin duten borrokalari taldeko azken ordezkaria dela.  
Denboran zehar bidaiatuz, sekulako boterea duten indar  
batzuei aurre egin beharko die. Arrasto batzuk jarraituz  
iritsiko da munduaren gordailu izatera, izan ere bere esku  
egondo da Lurraren defentsa. Susan Copperren elaberietan  
oinarrituta dago, publiko gazte zein helduen gozamenarako.

# Atzera hegira



**1907**. urteko erretratu zahar hau **Anjel Arozenak** laga digu. Karkizano baserriko familia da argazkian ikusten duguna. Garai hartan ez zen ohikoa erretratuak ateratzea, baina familia honek argazki dotorea atera zuen euren baserriko atarian. Etxabetarrak dira gaurko protagonistak. Argazki erdian Anjel Arozenaren aitaitia-amamak ageri zaizkigu eta gainontzekoak bere osaba-izebak dira. 100 urte inguru dauzka erretratu honek. Ikus dezagun zein diren argazkian agertzen direnak.

Goian, ezkerretik eskumara: **Tomas Etxabe, Antonio Etxabe, Josefa Etxabe, Mikaela Etxabe, Felipe Etxabe eta Jose Etxabe.** Eserita, ezkerretik eskumara: **Maria Etxabe, Petra Etxabe, Jose Mari Etxabe eta Leona (aitaitia-amamak), Lorenza Etxabe eta Simona Etxabe.**

*Okerrak zuzentzen: Joan zen asteko erretratu zaharra 1966. urtekoa zela esan ziguten, baina jakin dugunez, 1951koa zen.*

## Lanbroa



**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Elgoibar eta Mendara

## Gida Komertziala



lazko gidan zure negozioko telefonoa agertu ez bazen, deitu zenbaki honetara **943 74 37 04** edo helbide honetara idatzi: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)





# Chevrolet bat nahi baduzu, orain errazagoa da GIAUTOri esker. Pasa mezua!



Promozio honen balioa, 07-12-31 baino lehenago matrikulatutako Chevrolet automobil guzientzako da.

## Giauto

**EIBAR**  
Otaola, 27  
Tlf: 943 202 500  
clientes@giauto.es

**OLABERRIA**  
Karabi Ind. z/g  
Tlf: 943 885 150  
www.giauto.es



[www.fresko-freskue.com](http://www.fresko-freskue.com)

**EZAGUTU ZURE  
ALDERIK FRESKOENA**  
*[eros ezazu zure Udal Merkatuan]*

**100€-ko 50 opariren**  
zozketan parte hartzeko  
[www.fresko-freskue.com](http://www.fresko-freskue.com)







# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Etxekit

Sukaldeak eta bainuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ 943 74 43 47

### Ezenarro arotzerixia

Era guztietako arotz lanak  
☎ 653 707 837

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90

### Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31



## Indusketa lanak

### Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.com  
www.excavacioneslekunberri.com



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Javi

Erretxindi, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Zaldua

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Aramar

Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Pelo

Herriko Enparantza, 5 behea  
MENDARO  
☎ 943 03 35 35/660 791 723

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Igeltseritza

### Antonio Markez

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia  
☎ 943 74 30 94